



LARRAULGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## BANDOA

Herritar guztioi janarazten dizuet, 2014ko azaroaren 6an egindako udalbatzarrean, beste gai batzuren artean, ondorengo gaia aztertu eta akordioa hartu zela:

### LAUGARREN PUNTUA **LARRAUL AURRERA TALDEAK EGINIKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Larraul Aurrera taldeak eginiko proposamena, non ondorengo dioen:

#### "LARRAUL AURRERA TALDEAREN PROPOSAMENA:

*Ikusirik Legealdiaren bukaeran gaudela eta oraindik Larraulgo Plan Orokorraren tramitazioan, "abantze" dokumentuaren hasierako onespina emateko gaudela, aipaturiko dokumentua publikatzeko denboran luzatuko dela jakinik.*

*Aipaturiko dokumentua, eta Plan Orokorra idazteko esleitutako taldeak eginiko azterketak hurrengo Legealdiko Udal Taldearen eskutan uztea egokiagoa dela iruditzen zaigu.*

*Horregatik Udalbatzari ondorengo proposatzen diogu:*

- 1.-Larraulgo Plan Orokorraren tramitazioa bertan behera uztea, gure legealdia bukatu arte.*
- 2.-Udalbatza honetan, puntu honetan hartutako erabakia, herritarrei bando bidez, berri ematea nahi dugu."*

Gaia aztertu ondoren, Larraul Aurrera taldeak eginiko proposamena, bozkatu egiten da, ondorengo emaitza izanik:

- Aldeko botoak: Mujika, Barandiaran, Jauregi eta Aranzabal Alkate/zinegotziak.
- Kontrako botoak: Ez dira aurkezten.
- Abstentzioak: Irazu, Tejeria eta Usandizaga zinegotziak.

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengoaz, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Plan Orokorraren tramitazioa bertan behera uztea, legealdi hau bukatu arte.

BIGARRENA: Udalbatza honetan, puntu honetan hartutako erabakia, herritarrei bando bidez, berri ematea.

Larraulen, 2014ko abenduaren 15ean

ALKATEA

